

NON NAI ARANTZEA



Eskeko zar bat joian goruntz aldatsean,
Ta beruntz jasten zan bat topau ebanean,
Diñoitza:—Errukitu zakidaz zu gizon,
Ni duiñ errukarririk eztalako iñon;
Ez daukat seniderik, ez daukat andrarik,
Nazalako mutill zar soill eta bakarrik.
—Nok leukeken gizona zure suertea,
Ause zan bestearen erantzuerea,—
Enaz ni mutil zarra, badaukat andrea,
Iñon dongarik bada, bada bat nirea;
Senide asko ditut, danak arloteak,
Neuk ezin irabazi, amaika umeak,
Zuk daukazu bakarrik zeure ardurea,
¿Bakizu zeĩbatena dan barriz nirea?

*Berbarik egin baga geyago alkarri,
Bakochak jarrai eutsan, bere bideari;
Norberen naigabeak pentsetan pentsetan;
Arantzaren bat non nai da mundu onetan.*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

